


---

## Uste baino sakonagoa da Jupiterren Orban Gorri Handia

Jupiterren Orban Gorri Handia planetaren egitura deigarriena da. Ekaitz erraldoi bat da, Lurraren diametroa baino zabalagoa (16.000 km), eta uste zuten baino sakonagoa, Juno zundaren azken neurketen arabera. *Science* aldizkarian eman dute horren berri.



Orban Gorri Handia, Jupiterren egiturarik deigarriena.  
ARG.: NASA.

Izatez, Jupiterren atmosferan ugariak dira ekaitz handiak eta zurrunbiloak. Ez zekiten, baina, atmosferaren goialdean bakarrik gertatzen ote diren ala sakonago iristen diren. Hori argitzeko, Juno zundaren mikrouhinen eta grabitatearen neurketak erabili dituzte.

[Mikrouhinen datuen bidez](#), argitu dute Orban Gorri Handian eskala txikiko prozesu dinamikoak daukela, hala nola prezipitazioak eta behearazko korronteak, espero baino maila askoz sakonagoetan. Hortik ondorioztatu dute erlazioa dagoela Jupiterren barnealdearen eta atmosferaren geruza sakonaren artean.

[Grabitateari erreparatuta](#), ikusi dute Orban Gorri Handiak fluktuazioak eragiten dituela planetaren eremu grabitazionalean. Ondorioztatu dute Orban Gorri Handiaren sakonera 500 km ingurukoa dela, eta hori baino askoz ere sakonera handiagora hedatzen dira orbana elikatzen duten zorrotadak: 3.000 km inguruko sakonerara. ●

---

## Duela 25.000 urteko grabatu ezohikoak Alkerdi 2 haitzuloan

Alkerdi 2 haitzuloan (Urdazubi), duela 25.000 urteko dozena bat grabatu figuratibo aurkitu dituzte. Haien artean, bisonteak, uroak, zaldiak eta, bereziki, lau bulba nabarmentzen dira. Horrez gain, margo gorriz egindako bost lerro bikoitzen serieak daude. Iristeko zaila den leku batean zeuden ezkutatuta.



Alkerdi 2ko grabatuetako bat. ARG.: O. Rivero eta D. Garate.

Kantabriako Unibertsitateko Diego Garate Mайдagan labar-artean adituak koordinatu ditu lanak. Azaldu dutenez, multzo bikaina da, labar-arte paleolitikoan oso ohikoak ez diren ezaugarriak baititu. Izan ere, grabatutako ildoen azterketak erakusten du haiek egin zituen pertsona ez zela artista trebea, ez baita gai marra jarraituak eta ziurrak sortzeko. Normalean, ez da hala izaten: sarbide zaila duten lekuetako hormetako irudiak adituek eginak izaten dira; nolabait haientzat gordeko balituzte bezala. Alkerdi 2n ez da hori gertatzen.

Ikertakak oraindik martxan izanik ere, baieztatu dute Alkerdi 2 haitzuloa oso garrantzitsua dela arte-adierazpenaren jatorria hobeto ezagutzeko. Ikertzaile-taldea diziplina askotako adituek osatzen dute, eta Alkerdi-Zelaieta-Ikaburu sistema karstikoaren ikuspegi osoa lortzen lagundu du horrek. ●